

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Derioko Udala****Diru-laguntzen Ordenantza orokorraren aldaketa onartzea**

Korporazio honetako Osoko Bilkurak, 2022ko ekainaren 28an egindako ohiko ekitaldian, eta, aldeko 13 botoekin (7 EAJ-PNVk), (3 EH-BILDUK) eta (3 SV-ESk); eta, kontrako 0 eta abstentzio 0 botoekin, besteak beste, hitzez hitz, honela dioen ebazpena erabaki zuen:

Lehenengoa: Derioko Udalaren diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorraren aldaketa behin-behingo onartzea, honela:

- Diruz lagundu daitezkeen jarduera edo proiektuen artean sartzeari ekonomia- eta enpleguaren sustapena eta sustapena.

Ukitutako artikulua honako hauek dira:

7. artikuluariko puntu bat gehitu zaio:

- j) Ekonomia-sustapena eta enpleguaren sustapena: langabetuen kontratazioa sustatzeko jarduerak, prestakuntzarako laguntzak.

Bigarrena: Derioko Udalaren diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorraren aldaketaren behin-behineko onespena 30 egun balioduneko epean argitara dadila agintzea, interesatuek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, eta jendaurrean jartzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Hirugarrena: Erreklamaziorik aurkezten ez bada, Ordenantza aldatzeko behin-behineko erabakia automatikoki behin betiko bihurtzea. Erabaki hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da oso-osorik.

Derion, 2022ko uztailaren 7an.—Jarduneko Alkatea, Nekane Aiarza Zallo